


Noaia!!!

www.noaia.com



“Gatzaren Atzetik”, Yolanda Arrietaren lehen entsaio-liburua



Abenduaren 18an, igandea

Zatoz Santo Tomas azokara

ORAIN **BUTANO ETA PROPANO BONBONAK** **ALKARTASUNAN SALGAI**



ALKARTASUNA Nekazal Kooperatiba Elkarte
Ugarte Industrialdea 12. 20170 USURBIL Gipuzkoa
Tfnoa./ Faxe: 946 361 114
alkartasuna@usurbil.com

Txirrikitutik !!

2005eko maiatzean 18 urte bete zituen Gernika Zibilbidean kokaturik dagoen Udarregi ikastolako eraikinak. Eraikinaren nondik norakoak arakaten ibili ondoren, proiektua gauzatzeko izandako zailtasunez eta egindako lanaz jabetu naiz. Ikastola eraikitzeke aurre-proiektua 1981eko maiatzean aurkeztu zen Gasteizen. Bi urte pasa eta ezer ez zela lortzen ikustean, ikastolako juntak, lan-talde bat sortzea erabaki zuen Hezkuntza Sailaren aurrean eragiteko eta zegozkion erabakiak hartzera behartzeko. Dirutza handia zegoen jokoan. Eusko Jaurlaritzak ordea, obraren kostua bere osotasunean ez zuela bereganatuko jakinarazi zuen, udalaren parte hartzea behartuz. Hau ikusirik, juntak, 1984ko abenduan, proiektua aztertu eta obraren segimendua egiteko batzorde berezi bat eratzea erabaki zuen, ikastolako juntako bi kidez eta Udaleko bi zinegotziz osatua. Azkenean, 1986ko otsailean obrak hasi (argazkia ordukoa da) eta 1987ko maiatzean amaitu ziren. 87-88 ikasurtean ikastola berrian hasi zen.

Zalao Arnaiz Ibaguren



Udarregi ikastola, 1986, Kaleberri
Iturria: "Udarregi ikastola 1968-1993" liburua

Noaua!!

Argitaratzailea: NOAUA! Kultur Elkartea
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf.: 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com
www.noaua.com

Koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com
Publizitatea: Maider Alustiza, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbieta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Zalao Arnaiz, Jakoba Errekondo, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregerai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com
Bazkidetza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Zalao Arnaiz, Maider Alustiza, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza.

NOAUA! hamaboskariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteke jendaurreko ordutegia:
10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

AZALA

Azokan babarrun eta sagardo lehiaketak egingo dira.

Aurkibidea

HEMEN DA SANTO TOMAS AZOKA _____ 5. OR.

BIDE EGINEZ PROZESUAREN BATZARRA _____ 10. OR.

AITOR EGILETA ETXEAN DA _____ 11. OR.

Iazko abenduan ekin zion bidaiari. Urtebetez hainbat herrialde bisitatzeko asmoarekin abiatu zen eta jada etxean da. Bidaia kronika guztiak noaua.com webgunean aurkituko dituzue.



EGUTEGIAREN XEHETASUN GUZTIAK _____ 12. OR.

YOLANDA ARRIETAREKIN SOLASEAN _____ 14. OR.

SANTUENEA KULTUR ELKARTEA _____ 16. OR.

OLENTZERORI GUTUNA NOAUA! TXIKIN _____ 19. OR.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak diruz
lagundutako
aldizkaria



Euskal presoak

Euskal Herra!

Zutabea !!



JAKOBA ERREKONDO

25

Hogeitaboskarrena da, bai, atari-aurrean dugun urtean, maiatzaren azken-aurreko igandean ospatuko dugun Sagardo Eguna. Duela hainbeste urte dozena erdi bat eroren ametsa zena heltzen ari da. Eta heltzen dena bada. Usurbilen Sagardo Eguna bada! Sagardo Eguna bada nor!

Nor, usurbildarrentzat. Kuadrillan, senitar-tean, lanean, auzolanean eta diru-eginean ari direnentzat, eta Sagardo Egunak, lehenez gain, uraparretara harrotzen dituen usurbildarrentzat.

Nor, kanpokoentzat. Sagardogile, hedabide, politiko, teknikari, sagardozale, festa-eder eta aker ugarirentzat.

Dozena erdi bat eroren ametsa da 25. Sagardo Egun hau ere. Sagardoa eta sagarra denon ahotan ibili daitezten, sekula baino gehiago: sekulako egitaraua dakar, laister zabalduko da eta, lasai. Oraingoan ere sagardoaren barrutian nabarmen era usurbildarrok harro egoteko moduko ekintzak tajutzeko asmoa da.

Hogeitabost urte hauek, ez dira alferrik igaro, eta Sagardo Egunaren goldearen arrastoa nabarmena da. Begiak ireki eta ikusi. Baina, Intxuspeko errekan urak uhartzen diren gisan lausotzen dira batzuen begiak.

Usurbilgo sagardozaleen artean bada arantza bat, eta, azaletik eskarola bezala, arantza hori kentzeko aukera egokia da datorren Sagardo Eguna. Arantza horrek izen handia du gure

herrian: Artzabal. Artzabal baserria bai. Dolare gotiko bat barruan izateko eraiki zen baserri historikoa herriaren erdian. Saria, Ibarrolaundi, Bizkarre, Urteta, Zelaiaundi, eta abar luze batekin sagardogintzaren historiaren hastapen haletako lekuko eder. Egun ondare puska ikaragarria, dagoeneko legez babes-tua. Eta ustea asko da, dagoenerako, Artzabalen Sagardoaren inguruko Museoa egiteko proiektu oso bat (Proiektu orokorra, kudeaketa plana, finantziario plana, museologia...) burutu eta udaletxeko zokoren batean usteltzen ari dela. Zankalatraba egin zaio proiektu honi. Nork? Ez dakit. Udaletxea gobernatzen lehen jardun zutenek edo/eta orain ari direnek, ez dakit. Badakit, egungo udalak asmoa hankaz gora jarri duela beste erabilpen bat eman asmoz. Badakit, egungo alkatea ez dela sagardozalea, maiz entzun zaio, sagardoa=alkohola binomio sinplista publikoki aipatzen.

Garbizalekerietan mozkortu gabe, murgil gaitetzen geure kulturari, geure nortasunean, geure naturan, geure paisaian, geure etorkizunean. Etorkizuna baitira: ondarea, historia, identitatea, baserria, sagardoa, kalitatezko nekazaritza, turismoa...

Nahiago nuke geure agintarien artean, "Ipularra"-k diona, "pertsonek danak behar du holgura", bete eta datorren urtean Artzabalgo Sagardoaren Museoaren egitasmoa abiarazten dela egia balitz! Ametsetan jarrai dezagun...

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregerai

Ika-mika !!

Epaiketarik ez

18/98+ makro sumarioa Audientzia Nazionalak duela zazpi urte martxan jarritako auzia da, non hainbat erakunde, elkarte, enpresa eta 250 herritar inguru akusatua edota inputatuak dauden.

Zilegi eta bidezkoak diren jarduerak politiko eta sozialak ETArekin konplize, laguntzaile edo kide izatearekin parekatzen dituen tesia du oinarri sumarioak.

Jardunbide horietan oso larriak gertatzen diren bidegabekeriak aurkitzen ditugu, hala nola:

-Tortura eta tratu txarrak.

- Espetxealdi prebentiboaren erabilera neurrigabea.

- Fidantza ekonomiko neurrigabeak.

-Σ ...

Gogoratu herrian bi auzipetu ditugula makro sumario honetan, Olatz Altuna eta Juan Mari Torrealdai. Azaroaren 21ean hasi zen Olatzen epaiketa eta beste bidean da.

Norbanakoen zein kolektiboen eskubideen urraketa horiek euskal gizarte osoa jo dute zuzenean. Eskubide, askatasun eta berme horiek herritar guztion jabe-

tzakoak dira, pertsona guztionak, alegia, auzipetuta egon ala ez. Horregatik, ezin dugu epaiketa horien aurrean axolagabekeriak jokatu.

Egoera honi aurre egiteko denon beharra dagoela ikusirik, Usurbilen ere 18/98+ lan-taldea martxan da. Gonbidapena luzatzen dizuegu bakoitzak ahal duen neurrian parte hartzera, bai taldean zein antolatutako ekimenetan.

Epaiketarik ez!

Eskubide zibil eta politikoak orain!

18/98+ Usurbilgo lan-taldea

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA.

ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA,

NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: abenduak 30. Idatzia ekartzeko azken eguna: abenduak 23.

Denok Santo Tomas Azokara

Babarrun zein sagardo lehiaketak bereganatuko dute bisitariaren arreta

Aurten ere, Santo Tomas eguneko azoka antolatzeko denbora hartu du NOAUA! Kultur Elkarreak. Egun seinalatua abenduaren 21a den arren, Usurbilen beti aurreko igandean ospatu ohi da Santo Tomas azoka (aurten, abenduaren 18an). Inguruko babarrun zein sagardo ekoizle partikularren arteko lehiaketak izango dira azokaren ekitaldi nagusiak.

Babarrun lehiaketa herritarra

Partehartzaile bakoitzak babarrun kilo bana ekarri beharko du eta 10 euro jasoko ditu ordainean. Epaimahaian Tolosako Babarrun Elkarreko kideak, babarruna ekoizten duen herritar bat eta nekazaritza teknikari bat izango dira. Babarruna Santo Tomas egunean bertan eramán beharko da azokara. Izena oraindik ez baduzu eman, egunean bertan izango duzu aukerarik.

Babarrun lehiaketaren irabazleek honako sariak jasoko dituzte:

- 1 saria: 100 euro, trofeoa.
- 2 saria: 70 euro.
- 3 saria: 40 euro.

BI LEHIAKETA

“Etxeko sagardo zein babarrun onenak sarituko dira azokan”

Etxeko sagardo lehiaketa

Etxean edo baserrian sagardoa egin duen edonork har dezake parte (sagardotegiek ezingo dute lehiaketa parte hartu). Hamar botila aurkeztu beharko dira eta botila bakoitzeko 2 euroren ordaina jasoko da. Epaimahaian, Usurbilgo elkarte gastronomiko ezberdinetako partaide bana izango da.

Sagardo lehiaketaren irabazleak honela izango dira sarituak:

- 1 saria: 100 euro, trofeoa.
- 2 saria: 70 euro.
- 3 saria: 40 euro.



IAZ JENDE UGARI BILDU ZEN FRONTOIAN.

Esan bezala, epaimahai batek zehaztuko ditu hiru sari hauek. Baina Sagardo lehiaketa, herritarren iritzia ere kontuan hartu ohi da. Azokara azaltzen diren herritarrek erabakiko dute zein duten sagardo gustukoena. 50 euro eta trofeoa eramango du herritarren gustuko den sagardoaren egileak.

Taltoa eta txistorra

Lehiaketaz gain, azoka giroa berreskuratuz asmoz, goiz osoan zehar txistorra eta talo postuak egongo dira. Trikitilariak ere izango dira eta, nola ez, baserriko produktu naturalak erosteko aukera izango da azokan. Asteko erosketak egiteko une egokia izan daiteke.

Babarruna, tradiziozko erara egin izan den produktua

“Tolosako Babarruna, gure baserrietan tradiziozko erara egin izan den produktua da, eta hain zuzen ere, artoaren laborantzarekin loturik egin izan da lursail txikietan.

Ingurugiroarekin errespetuz jokatzuz egiten da eta erabiltzen diren ekoizpen teknikei esker, babarrun mota honen laborantza guztiz ekologikoa dela esan daiteke.

Nola ezagutu

Babarrun mota bikain hau, bere jatorria eta kalitatea bermatzeko dagokion ziurtagiria eta etiketa dituela aurkezten da. Gordina ez ezik, prestatua ere aurki dezakegu.



Bi aurkezpen mota hauetan, kontrolerako etiketa zenbakitu bat darama ontzian, eta bertan, Eusko Labelaren ikurra ageri da. Kalitatea Fundazioak emana, hain zuzen ere, erakunde horrek kontrolatzen eta ziurtatzen baitu produktu honen kalitatea.

Eusko Labela duen Tolosako benetako babarruna nahi baldin baduzu, egiazta ezazu Eusko Label kalitatearen ikurra daramala, hots, kontsumitzaileari ospea duen produktu bat ziurtatzen dion kalitatearen eta jatorriaren bermea”.

Tolosako Babarruna Elkarrea (azokan epai-mahai lanean izango da).

KOLDO
HUEGUN

Txokoalde

Energia kontua

Kaixo lagunok. Aurrera doa urtaroa, bukatzeaz Kdago urtea, egunik motzena iristear eta argia ekarriko digun "lutxi" jadanik atarian.

Nola? Ez dela "lutxi" argia ekarriko diguna? Nor arraio da ba, kabalगतको zuziria bailitza, nonnahi farolak jartzen ari zaiguna auzoan?

Instituzioetatik, seguruenik, ongi kostatako kanpainak zuzentzen ari zaizkigu, energia aurrezteko hain zuzen ere. Garraio publikoa erabiltzea, premiazko denean bakarrik autoa hartzea, orain negu partean, kalefazioa neurritz piztea, lanpara fluorestentek erabiltzea bonbila arruntan ordez... energia sortzeak dakarren kuxadura eta negutegi efektuaren areagotzea dela eta.

Hau dena kaleko jendearen betebeharrak noski, baina instituzio eta herri erakundeak zer? Eguberriak direla eta, milaka bonbila (betikoak) jarri, mendi bideak itxurik gabe argiztatu, abiadura handiko trenak diseinatu, polizia luxuzko autoez hornitu...

Jakin nahi nuke ze eskaerari edo beharri aurre egiteko jartzen ari diren farolak Sanistondik Txokora.

Zein izango da hurrengo pausoa, Puelaraino, edo Irabiko bidea? Energia aurrezteko modu xeblea agertzen ari digute gure politikoko profesionalak.

Bestalde argazki batek nigan sortu duen harridura, eta seguruenik zuetako askorengan ere bai, transmititzen saiatuko naiz, ez baita erraza hainbeste jende batera ikustea olibondo bat aldatzen.

Hasteko eta mihi gaiztoek "tema" izan ez dezaten, zera esango dut, Sahararekiko egiten diren elkartasun eta laguntza ekintza guztiak ongietorriak direla eta behar beharrezkoak, baina... Zuhaitz horren jiran zeuden batzuk ez ote dute politikoki pauso garrantzitsuagoak ematerik, argazki batean ateratzea baino?

Ez al da ulergaitza bere burujabetza eta autodeterminazioa bultzatuz borrokan ari den herri bat babes-tea, "argazkian bederen" eta Euskal Herria bide berdinetik eraman nahi izan dutenei inongo babesik ez eskintzea?

Paretak zurituko dituzue, baita zuen aurpegiak ere, baina herri honek bere bidea hartua du eta gehiengoaren ahotsa ez duzue ixilduko.

ENEKO
HARREGUY

Kaleberri

Ate joka

Dan-dan" jo dute atea, eta danba-danba sartu dira inori abisurik eman gabe. Inork nor dagoen atiaz bestalde galdetzeko astirik utzi gabe.

Sugandilak nola zirrikitu guztiak arakatu, halaxe sartu eta ibili dira miaka. Miaka ibili arren, ez dute ezer aurkitu. Ez dakit zer aurkitu nahi duten ere, beraz, ezin jakin zeren bila dabilzan. Dakidan gauza bakarra da inongo azalpen garbirik gabe etxetik naramatela. Etxetik naramate, emaztearen ondotik naramate, seme-alaben ondotik naramate. Eta nola naramaten ikusi dute denek. Gaizkile bat bainintzan, heriotzak eta heriotzak eragin dituen ez dakit zein diktadore edo politikoko eraman behar luketen gisan: eskuak bortxaz bilurtuta, etxeari azken begirada eskaintzeko aukerarik gabe, emazteari muxu bat emateko paradarik gabe eta haurrei eskuaren ahurrearekin laztan bat egiteko itxaropenik gabe.

Banaramate. Sugandilen pareta arteko zuloren batera edo Lurraren lurrezko zuloren batera.

Banaramate. Ezin dut gehiago irau. Barrunbeak oihuka ditut etxekoei deika. Gogoa darabilt beroa etxeko damaren ustegabeko aurpegia irudikatzen dudanean. Ustelgabeko kontserbatuko balitz ni infernu honetatik ateratzeko?! Ez daramat ezer soinean amorrua, nahigabea eta samina ez bada. Sikira etxeko txikien malkoen isuria lehortzeko zapia banarama nirekin? Sikira, etxeko txikien zati bat zapian?!

Ez dut zorionez duela 30 urte hildako beste bibotexkadun baten garaia bizitzeko aukerarik izan. Xehetasunak oraingoak baino gutxiago buruan, baina entzumenak ez dit esaten horrenbesteko zentsurarik zegoenik. Eta baldin baze goen, gutxienez, halako zigorrak zituenik zentsuratuak. Demokrazia eta adierazpen askatasuna eskubideez harrotzen direnek gure informazioa, gure hitza isiltzen dute. Eta ezin ametitu beharko genukeena: hitzen ordezkarriak itzaltzen dizkigute, gainera, gure hobebeharrez dela argudiatuz. Hurrengo ankerraldia noiz ikusarazi behar digute?

Futbol zelaia noizko?

Aurreko ale batean aipatu nuen Harane Futbol Zelaiaren konponketekin hasiko zirela, baina jadanik hilabete batzuk igaro dira eta konponketak egiten hasi ere ez dira egin, hau fundamentua! Hilabete batzuk pasa dira ere Usurbilgo futbol taldeak kanpoan entrenatzen hasi zirenetik eta partiduak Zubietan jolasten hasi zirenetik, eta tristea den arren, Harane Futbol Zelaiak lehengo moduan jarraitzen du. Honekin esan nahi dudana da, badela garaia konponketekin hasteko, bestela martxa honetan hurrengo denboraldia iritsiko da eta gauzak bere horretan jarraituko dute.

Bestalde, ohartuko zineten iada 2005. urtea

amaitzear dagoela eta 2006. urtearen atarian gaudela, konturatzerako urte hau ere pasa zaigu. 2006. urtea iritsiko den bezala ekaina iritsiko da eta "San Juanak" ere bai. Oraingo honetan auzoko gazteak auzoko festen antolaketan parte hartzeraz bultzatu nahi ditut. Azken urteetan festak antolatzen oso jende gutxi ibili da eta lan handiegia denez jende gutxiren artean egiteko, gutxi hauek ere nazkatu dira. Beraz, ea gazteak animatzen zareten, bestela auzokoentzat hain famatuak diren "San Juanak" ospatzearen ohitura galdu egingo da eta hori oso tristea izango litzateke.

Beno, ondo pasa gabonak eta hurrengo urterarte!

Kalezar



ALOÑA
PULIDO

A ze festa giroa!

Gabonetan gaude dagoeneko eta festa usaina etxe guztietan sartzen doa pixkanaka. Bazkariak, afariak, opariak, kantuak,... lan mordoa egin behar askotan ingurukoak pozik egon daitezten. Laister Olentzeroren zain egongo gara batzuk, Erregeen zain daudenak gehiago itxaron beharko dute. Santo Tomas egunean txistorra nahikoa jango dugu ixkina guztietan eta aurten Usurbilgo Urte Zahar gaua ea ahaztezina den guztiontzat, Mendeku Itxua herriko talde gaztea izango baitugu festaren arduradun. Urteak aurrera joan ahala, askok nahiago izaten dugu inguruko herrietara joan hobeto pasako dugulakoan baina azkenean non hobeto norberaren herrian baino?

Udarregiko haurrak oporretan egotean Udarregi ikastola ixilik egongo da. Baina haurrak etxean geratu baino nahiago dutenez kalean ibili aurrera eta atzera, izango dugu nahikoa iskanbila opari berriak estreinatzeraz jaisten direnean. Umeak beti ume, baina badira helduak ume izatea gustuko dutenak eta Gabonetan oso

ondo pasatzen dakitenak ere. Ea aurtengoan aurrekoan bezala petardoak botatzen ibili zirenak berriz ere animatzen diren, zain egongo gara.

Besterik gabe gabon zoriontsuak pasa eta une goxoak pasa ditzazuela maite dituzuenekin.

Atxegalde



AINARA
ARNAIZ





FAKO
AGUDO

Santuenea

Gabonak

Kaixo, zer moduz daramazue negua? Iritsi zaigu euria, elurra eta batez ere hotza. Denon, edo gehienon, gustokoa ez den arren bada jende asko neguaren bizimoduarekin gustora ibiltzen direnak, ehiztariak, eskiatzaileak eta zergatik ez euria goitik behera ikustea gus-tatzen zaienak ere badaude.

Orain denok dakizuen bezala neguak tarte bat egiten du urtea bukatu baino lehen. Gabonak datozte, bai, gabonak berriro ere hemen daude. Konturatu gabe beste urte bat joan zaigu eta zihur nago joan den gabonetan ilusioz pentsatu genituen proiektuak agian ez ditugula bete baino, ilusio horrekin behintzat urtea aurrera ateratzea lortu dugu. Izan ere,

urte hasiera une aproposa da aldaketarako, ate bat itxi eta beste berri bat irekitzeko. Zenbatek utzi behar diozue erretzeari gabonak pasa eta gero? Dena den urtea bukatu baino lehen aukera polita daukagu familia eta lagunekin egoteko oporrak direla eta.

Iritzi asko eta ezberdinak daude gabon jaietaz baina ezin da beraietaz ezkutatu, beraz ondoen aprobeztatzea gomendatzen dizuet. Askok aldatu dira jaiak azken urte hauetan, kontsumo jaiak ia bihurtu arte, baino ze demontre, Gabon jaiak oraindik ez ditugu hiltzen utzi behar. Behintzat gaztetxoek ilusio hori bizirik mantendu behar-ko genuke eta hori gure esku dago. Besterik gabe jai zoriontsuak izan eta datorren urterarte.



SARA
LAZKANO

Urdaiaga

San Esteban Txiki

Egutegia begiratu besterik ez dago, denbora-aren joanak ikusteko. Orriz orri, hilabeteak pasa dira eta neguaren erdian gaude berriz ere. Atzean dira jada, uda, hondartza, eguzkia eta opor luzeak. Auzokoontzat, udarak, besteak beste San Estebanak ekartzen dizkigu gogora, batetik bestera, jai giroan pasatako egunak, batzuek lanean, besteak parrandan,... baina egun onak guztion-tzat.

Ez dizuet, ordea, hau guztia zuek melankoliaz begiratzeko esaten, izan ere, egun onak dira uda-koak, hain zuzen, negukoak bezain onak, norbe-rak nahi badu noski. Soilik diot jaiegunena, dato-rreren aste hau ere, modu berean, festaz beterik bai-tatoz. Ezta mesede bat, goi alde honetatik, Santo Tomas, Eguberri, Urte Zahar eta Errege gaua ez ahaztu, inondik ere, baina egun bat libre izanez



gero, igo zaitezte gora, San Esteban Txiki egun-ean, eta hemen izango gaituzue zain. Meza, hamai-ke-tako beroa eta giro polita. Lehengo urtean elu-rra hasi zuen jendea mezan zen bitartean. Eta egia esan, ez da egunero tontor hau zuritzen ikusteko aukera sortzen.

Angula garaia

Titulua ikusita konturatuko zineten kronika honetako pertsonaia ez dela oraingoxea. Argazki honen erdian hor daukazue Pedro Zubiria Iraola, Orion bezala Zarautzen “Agiña Txikia” ezizen ezagutzen zutena. Gure osaba zen, aita Balentin eta izeba Anttoni bezala Galardi-garaikoan 1917an sortua, eta ezkondu arte Ezpaldi-txiki edo Paulonean bizi izan zena. Laugarren senidea Goiko Errotako Pilar zuen.

Bizikleta eta motoen zale amorratua zen Pedro. Famatuak izan omen ziren bere bi apostu behintzat. Apostu bat jokatu zuen Orio-Aiako Beobateko baten kontra. Bestea 1955ean Aginagako Juan Joxe “Beltza”ren kontra; guk Juan Joxe Uriberri-berrin ezagutu genuen. Bi apostuak Oriotik Zubigain edo “Xubai”ko aldapan jokatu ziren, eta biak galdu zituen gure osabak.

Juan Joxe Beltzaren kontrako apostua zen Xubaiko aldapa nork lehenago igo bizikletan, baina bitxikeria batekin: Juan Joxek aurreraka korritzen zuen eta Pedrok atzeraka, manilarrean eserita.

Jende asko hurbildu omen zen apostu hura ikustera, eta Juan Joxe izan zen irabazle. Garai hartarako



apostu ikusgarria izango zen. Osaba Pedoren jarraitzaile sutsuetako batek zera aipatu zidan orain dela gutxi: bi oinak lurrean jarrita abiatzeak aukera guttiak kendu zizkiola Pedrori.

Joan den neguan joan zen Pedro gure artetik. NOAUA!rako aukeratu dugun argazkian ikusten da beste bi lagunekin; bat Izoztegiko Benito da, Pedorekin batera eta bestera bizikletan hainbeste ibilera egindakoa. Lepotik zintzilika baratxuri sortak dauzkate eta abioi baten irudiaren aurrean ageri dira: San Ferminetan egindako erretratua den seinale.

Aginaga



LONTXO
ZUBIRIA

Agertutakoak, agertuko direnak eta agertuko ez direnak

Urtea amaitzeaz, asko eta asko gara urtean zehar atzeratutako lanak urte berria hasi baino lehen egin zale. Horregatik, garai honetan, eta uztaila (uzta jasotzeko hila) jada urrun dagoen arren, azkeneko momentuan egindako lanaren fruituak agertzen zaizkigu; fruituak, egindako lanaren tamainakoak, batzuk gozoak eta beste batzuk garratzak.

Konpostagailu berdeak agertu dira Zubietako baratze eta belazeetan. Zubietak zaborrak erraus-tearen kontra eta birziklatze eta konpostatzearen alde egindako lanak izan du fruiturik eta San Markos Mankomunitateak konpostagailuak eskaini dizkigu. Anima zaitetz zu ere eta lortu zure konpostagailua zenbaki honetara deituz: 943 67 02 49.

Konpostagailuek sortu ez duten inpaktua sortu du, agertu aurretik ere, Radio Nacionalaren antenak. Ezetz agertu azalpenak

ematera txikizio horren erantzule eta bultzatzaileak. Inondik inora agertzen ez dena antenaren obrak egiteko baimena da; agertuko al dira Donostiako eta Usurbilgo udaltzainak obra gelditzera?

Urtea bukatu baino lehen (eta luze joan da urtea) agertuko ez direnak, seguru, plaza inguruan hautsita dauden aulki, farola eta zaborrontziak konponduko dituzten langileak, ezta frontoia eta komun publikoak garbituko dituzten garbitzaileak. Eta ezingo diegu hori langile eta garbitzaileei leporatu, ezta?

Bada, ordea, astero-astero, Madrilgo Auzitegi Nazionalaren zirku ilunean 3 egun pasa ondoren, ostegunero Zubietan bueltan agertzen denik, zubietarron animo eta hitz goxoak eskertuko dituenik.

2006ak ekarriko ahal ditu fruitu gozoak ez besterik!

Zubietak



DENIS
ELORTZA

2006ko ordenantza fiskalak onartu ditu Udalak

Azaroko ohiko udalbatza plenoan, behin betikoz onartu ziren 2006ko ordenantza fiskalak. EA eta EAJ-PNV alderdien aldeko botuekin onartu ziren; PP eta PSE-EE udal gobernuak proposatutakoaren aurka azaldu ziren.

Bestalde, hiru mozio ezberdin aztertu ziren azaroaren 29ko udalbatza plenoan. PSE-EE alderdiaren ekimenez, heriotz zigorraren aurkako nazioarteko koalizioan parte hartzea erabaki zen; heriotz zigorrarekin amaitzea eskatzeko mundu

mailan egiten diren ekintzekin bat egin ez.

Horrez gain, pobreziaren aurre egiteko bi mozio aztertu ziren. PSE-EEk aurkeztuta, 'Pobreza Cero' kanpainarekin bat egitea onartu zuen udalbatza plenoak, herrialde pobreen proiektuekin bat egiteko konpromisoa aintzakotzat hartuz. EAJ-PNVk ere, pobreziaren aurkako mozioa aurkeztu zuen eta hori ere aurrera atera zen.

Plenoaren hasieran, alkateak Jose Mari Bravo udal arkitektoa zenaren lana ekarri zuen gogora eta minutu



“POBREZA CERO” KANPAINAREKIN BAT EGIN DU UDALBATZA PLENOAK.

bateko isilunea gorde zen. Jose Mari Bravo ezbeharrez zendu zen Donostian duela hilabete.

Abenduaren 17an Bide Eginez prozesuaren bigarren batzarra egingo da Aitzagan

Bide Eginez prozesuak hilabete bete du eta Batasuna alderdiak balorazio positiboa egin du. Herri batzarren lehenengo zikloa amaitu ondoren (Usurbilen lehen batzarra azaroaren 12an egin zen) bigarren batzarre-rako deialdia egin du Usurbilgo Batasunak. Abenduaren 17an, arratsaldeko 16:00etan, Aitzagan.

Usurbilgo Batasunak prentsa-ohar bidez jakinarazi duenez, Bide Eginez prozesuaren helburu nagusiak hauek lirateke:

- Bide Eginezen bidez, datozen lau urtetarako Batasunak zer nolako estrategia politikoa garatuko duen eta zer nolako Batasuna nahi duen finkatuko da.
- Estrategiari dagokionez: azken hamar urteotan jorratutako nazio eraikuntza eta eraldaketa sozialaren estrategian urrats berri bat emango du Batasunak prozesu honen bidez.

Prentsa-oharrak zehazten duenez, “*estrategia horren baitan, duela urtebete, Batasunak, gatazkaren konponbidearen alorrean iniziatiba politikoa hartu eta ‘Orain herria, Orain bakea’ alternatiba aurkeztu zuen. Orain, strategiaren bigarren zutabearen, alegia, nazio eraikuntzaren alorrean, sakondu eta iniziatiba hartzeko ‘Euskal Herria eraikiz’ deituriko proposamena*” garatu dutela dio Batasunak.

Alderdiari berari dagokionez,

“Batasunak berak eragin duen egoera berriari erantzun behar dion erakundea indartzeko prozesua da Bide Eginez”.

Norabide horretan, bi urratsetan sakondu nahi du: batetik, herriz herriko egituraketan eta, bestetik, ezker abertzaleko oinarri sozialarekiko harremanetan eta parte hartze zuzenean.

Dagoeneko bilkura-prozesuaren lehen zikloa amaitu da eta ziklo honetako balantzearen datu esanguratsuenak, honako hauek:

- 226 batzar burutu dira beste horrenbeste herri eta auzotan.
- Horietaz gain, 20 herri txikitan molde bereziko bilkurak antolatu dira eta beste 10 bilkura egin dira bai unibertsitateko kanpusetan bai langileekin. Denetara, beraz, 256 batzarretan ari dira txostenak eztabaidatzen.

- Bide Eginez txostenaren 13.000 ale banatu dira; horietatik 7.000 euskaraz, 5.000 gaztelaniaz eta 1.000 frantsesez. Horiek, ordea, gutxi izan dira eta txostenen fotokopiak egin behar izan dira. Txostenekin batera, material lagungarri gehiago ere sortu da. Lehen ziklo honetako gai nagusia lau urteotako balantzea izan da. Horren aurkezpena egiteko lagungarri gisa, DVD bat prestatu du Batasunak eta batzar guztietan erabili da. Eta, bestetik, “Orain.info” aldizkariaren azken alea nagusiki Bide Eginez prozesuaren gainean

egin da, eta batzarretan banatu da irakurgai lagungarri gisa.

80 txosten banatu dira

Partaidetzaren nolakotasunari dagokionez, ezker abertzalearen ildo politikoa militaritateak eta oinarri sozialeko kideak ari dira Bide Eginez prozesuan parte hartzen. “*Horien artean, Espainia eta Frantziako espetxeetan sakabanaturik dauden euskal presoak ere*”, Usurbilgo Batasunatik jakinarazi zaigunez.

Usurbilen, esaterako, 80 txosten inguru banatu dira eta lehenengo batzarra ere egin da. Bide Eginez prozesua auzoz auzo eta koadrila gehienetan aurkeztu da. 100 herritar ingururi aurkeztu zaie prozesua aurrez aurre.

Azaroaren 12an egin zen lehen batzarra eta 36 lagun elkartu ziren. Lehen batzar hartan lau urteotako balantze politikoa eta ildo politikoa gatazkaren konpokataren atala jorratu ziren.

Bigarren batzarra abenduaren 17an egingo da, Aitzagan, 16:00etan. Batzar horretan ildo politikoa txostenarekin jarraituko da (2. txostena); zehazki, Euskal Herria Eraikiz ildo eta erantzunaren ildo.

Ildo politikoa amaitzerakoan, Batasunaren antolaketa eta egiturari buruzko atala jorratuko da.

Amaitu du bere abentura Aitor Egiletak

Jada hemen da Aitor Egileta, munduko herrialde ugari bisitatzen urtebete eman duen usurbildarra. Lehenetik ere Euskal Herritik kanpora ibilia bazen ere, inoiz ez zuen horrelako bidaiarik egin. Baina aurreko ibilaldietan ezagututako jende askok bultzatuta, bideari ekin zion iazko abenduan. Urte honetan zehar Aitorrek Internet bidez bidalitako bidaia-kronika ugari topatuko dituzue gure webgunean (noaua.com). Dena den, azken kroniken zertzeladak jaso ditugu orrialde honetan.

Iazko abenduan, urte osorako eszedentzia eskatu eta bakarrik ekin zion bideari Aitorrek. Orduetik, urte osoa eman du hara eta hona, munduko lekurik zoragarrienak bisitatzen. Bidaia Brasilgo Salvador de Bahian hasi eta Hego Amerikaz gain, Ozeania eta ia Asia osoa zeharkatu ditu, aurtengo abenduaren 9an berriro Usurbilgo giro hezea sumatu arte.

Urtebeteko zeharkaldia egiteko asmoarekin abiatu zen, baina Hego Amerikan zegoela egin genion elkarriketan argi

utzi zuen zaila zela noiz itzuliko zen jakitea. Hala ere, ez du arazorik izan urte osoa ingurune eta kultura ezberdinak ezagutzen pasatzeko. Lehenengo astea pixka bat gogorra izan bazen ere, bakar-dadera ohitu eta gaintitu ere egin zuen: bisitatu duen leku orotan ezagutu baitu laguntzeko prest zegoen jendea eta, bere ustetan, bakarrik egoteak ahalbidetu dio hori.

Bitxikeria ugari

Brasil, Paraguai, Argentina, Txile, Ekuador, Frantziar Polinesia, Zelanda Berria, Australia, Kaledonia Berria, Japonia, Hong Kong, Kanbodia, Vietnam, Tailandia, Laos, India eta Jordania izan dira, besteak beste, bere geltokiak, bere abiapuntuak. Amazona, Patagonia eta Galapago Irlak ezagutu ditu Hego Amerikan; atzerritar hippieak ikusi ditu Indiako ibai sakratuetako erritualetan; ipurdia ur epelarekin garbitzeko sistema ezagutu du Japoniako komunitan eta Zelanda Berriko denda batean "Munduaren euskal historia" liburuare-



INDIAKO PUSHKAR
HERRI SANTUAN.

kin topo egin du, besteak beste, lurraldez-lurralde osatu duen abentura liluragarri honetan.

Kronikak eta argazkiak

www.noaua.com webgunean

Bere bidaiaren inguruan gehiago jakiteko, Aitorrek berak idatzitako kronikak irakurri besterik ez duzu, noaua.com webgunean topatuko dituzue bidaia-kronikak, argazki ugari atondurik. Bertan herrialdearen deskripzioa, argazkiak eta zenbait bitxikeri ere topatuko dituzue.

Bere bidaia kronika guztiak, noaua.com webgunean



JAPON. "TENPLUTIK TENPLURA
ERROMESAK".



VIETNAM. "MATERIALA
GARRAIATZEN IBAIETAN".



LAOS.
"TENPLU BAT".



TAILANDIA. "TUK TUK IZENEKO
TAXIAK EDOZEIN BAZTERRETAN AURKI
DITZAKEGU".



INDIA. "BEHIAK KALEAN ETA
EMAKUMEEN ARROPA
KOLORETSUAK".



JORDANIA. "GAMELU GIDARIAK
ONDO MODERNIZATU DIRA
MUGIKORRAK ERABILIAZ".

Egutegia, NOAUA!ren oparia

Ale honekin batera, NOAUA! Kultur Elkarteak plazaratu duen egutegia jaso duzue. Beste behin ere, Zalóa Arnaizek osatu du dagoeneko etxe askotan ezinbestekoa bihurtu den argitalpena. Pentsa, 2006ko egutegiaren zain ziren asko pasa dira bulegotik, "noiz iritsiko da berria?" galdezka. Jada hemen da. Batekin nahikoa ez eta beste egutegi bat behar baduzu, NOAUA!ko bulegotik pasa. Bazkideek, beste ale bat doan jasotzeko aukera dute. Bazkide ez direnek, ordea, hiru euro ordaindu beharko dituzte.



Joxean Labaien argazkilaria, aurtengo egutegiaren protagonista nagusia

Zalóa Arnaizek egiten du NOAUA!ko egutegia. Iaz, Kutxako irudi eder asko bildu zituen. Aurten, herriko argazkilaria batengana jo du, Joxean Labaiengana hain zuzen. Argazki bilduma handia du eta Zalóarekin batera hartu du parte argazki-aukeraketan.

NOAUA! Iaz, Kutxa Fototekako irudiak baliatu zenituen egutegia osatzeko. Aurten, herriko argazkilaria baten lanean erreparatu duzu, ezta?

Zalóa Arnaiz. Bai, iaz Kutxa Fototekako irudiak, Auñamendi Argitaldaria eta hainbat herritarrek utzitako argazkiak erabili genituen. Aurten berriz, Joxean Labaieni galdetu genion ea NOAUA!ko urtero argitaratzen duen egutegian bere argazkiak jartzera animatuko ote zen. Hasieran dudekin egon zen arren, baietz esan eta lanean hasi ginen. Joxeanek azken urteotan argazki asko atera ditu, bilduma handia dauka eta NOAUA!ko egutegia bitarteko paregabea da bildumako hainbat argazki erakusteko. Aurten Joxeanen argazkiak izan dira. Datorren urtean bestelakoa izan daiteke. Ideia edo proposamen desberdinak entzu-

teko prest gaude.

N. Zeintzuk dira aurtengo egutegien bereizgarri nagusiak?

Z. A. Azkeneko urtetan NOAUA!ko egutegia argazki zaharrez osatu da baina aurten bestelako argazkiak erabiltzea erabaki genuen, gertutasun bat emateko eta zergatik ez, gaiaz aldatzeak bestelako freskotatuna ematen duelako. Eta bide batez, herriko argazkilariei beraien lana erakusteko aukera berri bat zabaldu diegu. Urte-urtez egutegian agertzen den informazioa hobetzen saiatzen gara. Aurten adibidez, herrian ospatzen ditugun jai eta ospakizunetaz gain, bestelako informazioa sartu dugu: urtarokak, tenporak, olio birziklatzeko egunak, Etxeratlek urtean zehar egingo dituen hileroko elkartertzeak...

N. Denbora asko kentzen al du era honetako lan bat osatzeak? Noiz hasi zinen egutegia prestatzen?

Z. A. Duela bi hilabete inguru hasi ginen Joxeanekin biltzen eta egutegiaren nondik norakoa aztertzen. Denbora gehiena argazkiak aukeratzeak eta horiek egutegian txertatzeak ematen du. Lan hau egiteko Joxeanen partehartzea ezinbeste-



EGUTEGI BERRIKO ARGAZKI BAT.

koa izan da. Guztira 37 argazki aukeratu dira, 1983-2004 urte bitartekoak. Gainontzean egutegiak urteroko egitura antzekoa duenez ez du lan askorik eman: ilargiaren gorabeherak eguneratu, jaieguna eta ospakizunak egokitu, telefonoen gida erreparatu ... Eskerrak eman behar dizkiot Joxeani eskaini digun arreta eta laguntzarengatik.

N. Jada etxekoa egin da NOAUA!ko egutegia. Asko zain izaten dira; iazkoaren ordez berria jartzeko zain. Zuk ere sentsazio hori al duzu?

Z. A. Azken urteko egutegiak gustura hartu direla badakit. Ni egutegia gustukoa eta lagungarria suertatzearekin konformatzen naiz.

Lanbide Eskolak Energia Berriztagarrien Gunea bisitatzeko kanpaina jarri du martxan

Ursurbilgo Lanbide Eskolak Energia Berriztagarrien Gunea ezagutzeko kanpaina jarri du martxan. Gune honetan haize indarra, eguzki indarra, energia geotermikoa eta aurrezte eta eragin-kortasun teknologiak ikus daitezke. Edozein mailako pertsonentzat zein taldeentzat prestatuta dago gunea. Urtean zehar, edozein egunetan hurbiltzeko aukera dago. Hori bai, lehenik eta behin, Xabier Esteban kudeatzailearekin harremanetan jartzea komeni



BESTEAK BESTE, EGUZKI INDARRA-
REKIN LOTURIKO TEKNOLOGIA
EZAGUTZEKO AUKERA DAGO.

da, aldeztu aurretik honako telefono zenbakira deituz: 943 36 46 00.

Mendi Astea, azken txanpan

Eta aurrera begira, zer? galdera argitu asmoz, Andatza taldeak batzar orokorrean partehartzeko deialdia egin du. Hitzordua abenduaren 16an, iluntzeko 20:00etan, Sutegiko auditorioan.

Aralarko guardetxetik abiatu eta Ataunen amaituko da helduentzako prestatu den ibilaldia. Abenduaren 17an, goizeko 7:30ean abiatuko da autobusa Usurbilgo udaletxeko plaza-tik. Bazkaria Ataunen izango da. Bazkaria eta autobusa, 25 euro. Izen-

ematea, ordea, aldeztu aurretik egin behar da: abenduaren 14a baino lehen, Benta tabernan.

Abenduaren 18an, haurrak

Haurrentzat ere izango da ibilaldirik. Azaroaren 18an, goizeko 9:00etan abiatuko da mendi-zeharkaldia.

2006ko federatu txartela

Abenduaren 13, 14, 15 eta 16an federatu txartela berritzeko aukera izango da. Sutegin, arratsaldeko 19:00etatik 20:00etara.

Naziotasun eskubidearen aldeko ekimena

Abenduaren 10ean, giza eskubideen egunarekin bat eginez, naziotasun eskubidearen aldeko eguna antolatuko du Udalbiltzak. EHNA (Euskal Herriko Naziotasunaren Aitormena) karnet hutsa baino gehiago dela nabarmendu nahi izan zen. Hori dela eta, EHNA tramitatzeko mahaia jarri zuen UHLk. Jada EHNA dutenei, berriz, bere erabilera areagotzerari ekin zitzaien.

Mus Txapelketa berezia Antxetan

Ohi bezala, abenduaren 24an Mus Txapelketa Berezia jokatuko da Antxeta jatetxean. Arratsaldeko 16:00etan hasiko da. Bikoteko, 22 euro. Sariak, hauexek:

1 saria. Txapelak eta trofeoak, bi arkume eta gabonetako bi lote.

2 saria. Arkume bat eta gabonetako bi lote.

3 saria. Sei txuleta eta gabonetako bi lote.

4 saria. Lau txuleta eta gabonetako bi lote.

Izen-ematea, jatetxean bertan, txapelketa hasi baino lehen.

Pelexen eskulturak Bartzelonan ikusgai

Jose Luis Elepe "Pelex" eskultore usurbildarra ez da geldirik egoten den horietakoa. Egun hauetan, Bartzelonako Toranto arte galerian dira bere hainbat artelan. Egurrez nahiz bestelako osagarriekin eginiko eskulturak eraman ditu Bartzelonara.

Abenduaren 27ra bitartean, Mostra de Barcelonan dagoen galerian izango dira Pelexen eskulturak ikusgai.

Sutea Zubietako zalditokian

Abenduaren 6an bi lagun zauritu ziren Zubietako zalditokian izandako sute batean. Arratsaldeko 15:30ean piztu zen sutea zalditokiko pabilioi batean eta bertan zeuden zaldiak atera egin behar izan zituzten. Suhiltzaileak handik gutxira bertaratu ziren eta 16:10 inguruan sua itzaltzea lortu zuten. Sutearen ondorioz, bi zaurituz gain, kalte material ugari izan ziren pabiloian.

Sutegiko udal liburutegiaren oharra

Sutegi udal liburutegiak jakinarazi duenez, "udaletxeak antolatuko eta Sutegi kultur etxean gozatu ahal izango diren emanaldietarako sarrerak ez daudela Liburutegian salgai, udaletxeko errejistroan eta kiroldegian baizik".

Beraz, datozen ekitaldietan, sarrerak aldeztu aurretik eskuratu nahi dituenak udaletxera edota kiroldegira jo beharko du.

Yolanda Arrieta idazlea:

“Literatura produktu bihurtzen ari gara denon artean”

Bi liburu aurkeztu zituen Durangoko Azokan. “Astebeteko kontuak” liburua, haur eta gazteei zuzendua; eta “Gatzaren atzetik”, bere lehen saiakera liburua. Bizkaitarra jaiotzez, Usurbilen bizi da Yolanda Arrieta. Bereziki, haur eta gazte literaturan nabarmendu da baina nobela bat ere badu argitaratua eta azken boladan prentsan ere badabil. “Gatzaren atzetik” saiakera liburua abiapuntu harturik, hizketaldi polita izan dugu Yolanda Arrietarekin.

NOAUA. “Gatzaren atzetik” liburua argitaratu berri duzu. Zure lehen saiakera liburua da, ezta?

Yolanda Arrieta. Bai, beno, nik saiakera izena jarri diot. Egia esan ez dakit oraindik saiakera zer den; baina ipuina ez denez, nobela ez denez, azterketa hutsa ez denez eta poesia ez denez, ba saiakera izango da!

N. Nondik nora dator liburua?

Y. A. “Mari Xor” ipuina jaso nuen duela hogeit hamar urte Iruñean, artean, Bernardo Atxaga “Obabakoak” idazten ari zen eta UEUra joan zen hitzaldi bat ematera. “Mari Xor” ipuina irakurri zuen Atxagak. Hitzaldiaren amaieran galdetu egin nion ea nondik atera zuen ipuin hori. Esan zidan Joxe Arratibelen “Kontu zaharrak” liburutik aterata zegoela, baina liburu horren hiru edo lau ale bakarrik ezagutzen zituela, oso zaharrak zirelako; berak etxean hiru ale zituela eta ale bat etxera bidaliko zidala. Eta gutun batekin bidali zidan.

Duela zortzi urte Kultur eta Gizarte Antropologia ikasketak hasi nituen Donostian, eta han “perspektiba feministak” irakasgai lan bat egin behar genuen. Hor bururatu zitzaidan “Mari Xor”eko harremanak eta irudia aztertzea. Irakasleak esan zidan polita zela, oso gutxi zegoela aztertuta herri kulturaren eragina roletan eta emakumeen iru-



NOAUA!KO EGOITZAN AZALDU ZIZKIGUN BERE AZKEN LANAK ETA EPE LABURRERA DITUEN EGITASMOAK.

dietan eta nire kontura gehiago landu beharko nukeela. Baina nik garai hartan karrera atera nahi nuen eta apartatu egin nuen.

Gero, lan hori lehiaketa batera aurkeztu nuen. Esan zidaten interesgarria zela baina ez zela saiakera literarioa. Denborarekin jendea hasi zitzaidan zati-txoak eskatzen fotokopiatzeko eta jadanik liburua ateratzeko garaia zela pentsatu nuen, amaituta ikusten bainuen.

YOLANDA ARRIETA

“Gero eta haur eta gazte literatur zaleagoa naiz”

Horrela, argitaletxe batera joan nintzen, esan nien zer nahi nuen, eta haiek ere esan zidaten gustuko zutela baina ez zela komertziala. Emakundekoekin kontaktua lortu eta aurten lehen aldiz Emakundeko dirulaguntzen artean argitalpenetarako laguntzak agertzen zirela esan zidaten. Proiektu bat eta inprenta bateko aurrekontu bat aurkeztu behar nituen. Arazoak izan nituen aurrekontua

lortzeko. Eta azkenean neure kontura egin nuen. Inprenta batera joan nintzen, idazle elkartekoek erabiltzen duten inprentara, dena azaldu nien, aurrekontua egin zidaten, azken egunean bidali nuen dirulaguntza eskaera eta eman egin zidaten. Kostata, baina lortu nuen.

N. Dena den, haur eta gazteen literaturan nabarmendu zara bereziki. Esker onekoa al da?

Y. A. Gero eta haur eta gazte literatur zaleagoa naiz. Literatura produktu bihurtzen ari gara denon artean, eta behar beste denborarik ez dugu hartzen hori dastatzeko. Haur literaturan ere hori gertatzen da, baina nolabait haurrekin sentsazio berezia daukat: behin eta berriz jaiotzeko eta berritzeko aukera daukazu, eta behin eta berriz balizko munduak planteatzeko aukera daukazu. Baita helduen literaturan ere, literaturaren xede nagusia hori delako, balizko munduak eraikitzea, baina umearekin agian errazago egin dezaket hitzekin

 (Aurreko orrialdetik dator)

jolas. Era berean, benetakoa ere bada, zeren nik ba baitakit umeek merkatuan beste gauza asko dituztela errazago saltzen zaizkienak, gero eta gehiago, eta orduan liburu bat hartzen duten momentuan, gustatzen bazaie, benetan gustatzen zaie.

Berrian, iritzi-emaile

N. Ipuin kontalari izan zara, idazle, argitaratzaile, tailerretan hartu duzu parte... Jada urte batzuk egin dituzu literaturaren inguruan. Idazteko garaian, gero eta sendoago ikusten al duzu zure burua?

Y. A. Teknika aldetik bai, baina nik oraindik ere beldurrak dauzkat. Buelta asko ematen dizkiet idatziei editorialera eramane baino lehen. Zutabeak, adibidez, freskoak eta azken momentukoak izan behar dira, hor ibiltzen naiz azken orduan, eta horrek eman dit bultzada bat edo. Baina, noski, ezberdina da liburu bat egiterakoan. Batez ere umeekin. Neurria hartzea oraindik zaila egiten zait, fikzio hutsa egitea umeekin, eta hori gustagarria eta zuzena izan dadila.

Egitasmo ugari ditu Yolanda Arrietak

Orainsu argitaratu du “Gatzaren atzetik” saiakera liburua. Ekainean, gatzetxoentzako “Astebeteko kontuak” liburua argitaratu zuen “Aizkorri” argitaletxearekin. Urtea emankorra izan da. Baina ez pentsa Arrietaren iturria agortu denik. Egitasmoak, behintzat, asko ditu.

Haur literaturari dagokionez, “baditut pare bat ideia umeentzako. Galderekin osatua, bata; eta gauza inperfektuen ingurukoa, bestea”.

Berriako idatzien bilduma

Azken urteotan, prentsan ere nabarmendu da. Urtarriletik, aste-oro-astero Berria egunkariko “Maratila” zutabetxoa idatzi du, asteazkeneko edizioan hain zuzen.

“Zutabetxo horiek hartu eta nire gustukoenak bilduta konpilazio bat egiteko asmoa dut, baina ez dakit egingo dudan”, aitortu digu Yolanda Arrietak.

Mantangorri idatzitakoak

Berriak argitaratzen duen “Mantangorri” gehigarrian ere, ipuin bat argitaratu zuen eta hori liburu batean jaso nahiko luke: “zati-ka, 14 kapitulutan argitaratua izan zen. Idatzi hori 8-10 urteko umeentzat egokitzeko asmoa daukat”.

Ikusten duzuen moduan, proiektuak ez zaizkio falta. Dena haur literaturari lotua? Ez. Helduentzako zerbait idatzi nahi du. Denbora asko kenduko dio baina ez du ezer aurreratu nahi izan.

Eguneroko kultura txikia sustatzearen alde

NOAUA! Sutegi ireki berri da. Zer nolako itxura hartu diozu?

Yolanda Arrieta. Lehenengoz sartu nintzenean oso polita iruditu zitzaidan, sorpresa ona izan zen hasierakoa. Kanpotik txikiegia iruditzen zitzaidan, agian L forman egin dutelako karratua beharrean. Bestalde, ondo iruditu zitzaidan liburutegian umeen aldea bereiztea, baina ipuinak kontatzeko leku bat falta dela iruditu zitzaidan. Argi asko dago umeen txokoa, oso erakargarria egiten da. Gero ikusi nuen leku asko dagoela, eta leku hutsak daudela. Alegia, liburu asko falta direla. Eta goian, oso polita da kanpotik egin dioten gortina itxurako hori, baina horrek argi guztia jaten du, eta horri begira egotea liburua

aurrean dela pixka bat tristea da. Hor argirik ez dago, argi zuria behar da bertan, liburuek eta paperak berak eskatzen baitute. Baina orain falta dena da, eta leku gehienetan gertatzen dena, eguneroko kultura txikiari garrantzia ematea; hau da, uste dut liburutegian jada finko egon beharko luketela gazteentzako irakurketa saio batzuk, literatura, idazketa, elkarrizketa... hitza bitarteko duten saioak, hain zuzen.

Umeekin ere bai, idazketara bideratuta batez ere. Eta gurasoentzat, liburuekin eta umeekin zer egin irakatsiko duen zerbait, praktikotasun baten bidetik, ez hitzaldi moduan. Eta hori ez da norbaitek erakusten duena, hori taldean egin behar da.

Bibliografia

Haur eta gazte literatura

- “Badago ala ez dago...?” 1992
- “Begigorriaren erlojua” 1992
- “Hegaldiak” 1994
- “Denboraren kanta-kontuak” 1995
- “Nola bizi, zazpi bizi” 1996
- “Groau!” 2004
- “Astebeteko kontuak” 2005

Nobela

- “Jostorratza eta haria” 2001

Saiakera

- “Gatzaren atzetik” 2005

Mari Carmen Oroz, Santuenea Kultur Elkarteko lehendakaria

“Lehen, auzoan ez zegoen ezer eta jendea galduta zegoen”

Duela urtebete sortu zen Santuenea Kultur Elkartea. Ordutik hona, ia laurogei bazkide bildu dira eta ekitaldi ugari antolatu dituzte: hitzaldiak, yoga eta dantza ikastaroak helduentzat; pintura ikastaroak eta haurrentzako emanaldiak gazte-txoentzat. Mari Carmen Oroz elkarteko lehendakaria da eta bere ustez, auzokideek oso gustura hartu dute elkartea, eta etorkizunera begira eskaera ugari jaso dituela aitortu digu.

Urteak joan urteak etorri, balkoi azpian hurrekin egoteaz jada nazkatu zegoen emakume talde bat elkartu zen duela urtebete Santuenean, udaletxean lokal bat eskatzeko asmoz. Udalak, honen aurrean, emakume talde batek besterik gabe lokal bat kudeatzea zaila izango zela esan zuen, baina beste talderen baten adar bezala jardunez gero errazagoa izango zutela eskaera burutzeari. Horregatik, Santueneko emakumeek Guraso Eskolarenengan jo zuten, eta hauek, trabarik jarri gabe, gustura



SANTUENEN KULTUR ELKARTEAN BERRIAN JASO GINTUEN MARI CARMEN OROZ.

an egingo zuten.

Lokalaren eskaeraren aurrean, lokal txiki bat eman zitzaion lehenengoz, baina auzorako zerbait gehiago behar zutela konturatu ziren. Izan ere, gainontzeko auzoek bazituzten era ezberdinetako aterpeak: frontoia, lokalak... “Baina Santuenean ez zegoen ezer eta jendea pixka bat galduta zegoen”. Auzoan, gainera, emakume asko daude bakarrik; alargunak direlako edo beste arrazoiengatik.

Yoga, areto-dantza...

Hau ikusita, lokal egokiago baten eskaera egin zuten eta honekin batera Santuenea Kultur Elkartea osatu zen. Urteko programa korrika eta presaka egin, estatutuak idatzi eta elkartea ofizialki erregistratu egin zuten. Mari Carmen lehendakari bezala izendatua izan zen.

Eskaintza zabala

Lehen jarduerak yoga, areto-dantzak eta haurrentzako ekintzak izan ziren; besteak beste, San Sebastianetako danborrada, Iñauteriak, Santo Tomasak, Santa Ageda, ipuin kontaketa, Txan Magoa, pailazoak, kale-antzerkia... Eskaintza zabala izan da orain artekoa.

MARI CARMEN OROZ

“Orain, emakumeak batez ere, oso elkartuta ikusten dira”

Ibai-ondo sozietatearen eta zahar-etxearen laguntza izan dute, denon arteko lankidetzan oinarritu nahi baitute.

ELKARLANEAN ARI DIRA

Elkarte berri hau Ibai Ondo eta Zahar Egoitzarekin elkarlanean dihardu

onartu zuten batera funtzionatzeko eskaera.

Aurrerantzean, eskakizunen bat giterakoan, Guraso Eskolaren izene-

Abenduaren 2an mikologiari buruzko hitzaldia egin zen, Ibai-Ondokoen eskaera bati erantzunez. Ez dute elkarteak emakumeak soilik kartetan jolasten ibiltzeko toki bat izaterik nahi, nolabait auzoko taldeak pixka bat dinamizatzeko bilgunea izatea baizik. "Ibai-ondokoek perretxi-koen inguruko hitzaldi bat gustura entzungo zutela esan zuten, eta horregatik ekarri genuen Daniel Palacios aditua gure artera", argitu digute. Onurak nabarmenak dira. "Jendea oso sakabanatuta zegoen, eta orain, emakumeak batez ere, oso elkartuta ikusten dira".

ALARGUN ASKO

Santuenean emakume alargun asko dago. Yoga ikastaroak batu egin ditu

Emakume alargun asko dago Santuenean, zer egin ez zekiten emakume asko. Baina yogarekin, adibidez, batu egin dira; orain taldetxoetan biltzen dira eta euren artean gehiago hitz egiten dutela ere ikus daitekeela dio Mari Carmenek. Aurten, gainera, autoestimaren inguruko urte osorako tailerra izan dute, arazo asko zituzten emakumeak baitzeuden.

Abenduaren 17an inaugurazio ekitaldia

Abenduaren 17an, Santuenea Kultur Elkarteak egoitza berria aurkeztu nahi du jendaurrean. Inaugurazio ofiziala bazkide eta beste elkartei begira antolatu dute. Gabonak apur bat girotzeko edo, luntzaz aparte, eguberrietako kantua entzun eta abesteko aukera izango da.

Santuenea Kultur Elkarteko lehen-dakari da Mari Carmen Oroz. Eta Alazne Lazkano, elkarteko idazkari.

Jada hasi dira datorren urteko egitaraua prestatzen

Datorren urteko programa oraindik zehaztu gabe dago, baina yogak arrakasta handia duela ikusi dute. Kaxkoko jendea ere agertzen da, eta azpimarratzekoa da auzoko emakumeak nola mugitu dituen. Aretoko dantzekin ere jarraitzeko

eskatu dute, zenbait hitzaldi egiteko-tan daude, makilaje-ikastaroa... Bereziki haur eta emakumeentzat sortu bazen ere, gazteei ere zabaldu zaie egoitza berria. Orain, gaztetxoak Capoeira eskatzen ari dira eta ludoteka egiteko nahia ere badago.



GAZTEEK CAPOEIRA IKASTAROA ESKATU DUTE.

Larazaintza
 sortak
URTINEA
 urtinea@euskalnet.net
 Lanareak
 karosak
 Landareak
 SAN Esteban
 943 362 055
 943 366 054 fax

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
 FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
 ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
 Kale Nagusia, 2 1.C4
 Tlf 943 37 08 78
 20170
 USURBIL

Zendoia

 Kale Nagusia 35 943 37 40 71

JOSETXO IKATZETA
 Iturgintza
 TELF: 943 36 20 26
 687 95 12 25

IGELTSE ITZ t INTU
 943 37 08 78
 1 7 8 3 5 5
 37 37 3

www.noaua.com
 USURBILGO ATARIA



Kaixo Olentzero!

Kaixo Olentzero! Lau urteko neska mutilak gara. Udarregiko ikastolara etortzen gara eta gaur zurekin hitz egin nahi dugu.

Zer moduz bizi zara mendian Mari Domingirekin?

Ohea eta mantak ba al dauzkazu?

Ikatza pila bat egin al duzu?

Beno gu oso txintxo portatu gara eta gure etxera etortzea nahi dugu, etorriko al zara?

Tximiniatik sartzea oso zaila da eta atea irekiko dizugu.

Txapela buruan jantzi eta abarkekin ibili hankak ez hozteko.

Beno, Olentzero, inoiz ez zaitetz hil, betirako bizi zaitetz.

OLENTZERO TXINTXOA
 LASTER OPARIAK EKARRI
 OLENTZERO BIHOTZ ONEKOA
 OLENTZERO MUSU GORRI
 ASTO GAINEAN ETORRI
 GURE ESKUTITZAK BILDU
 ETA IRAKURRI
 ETA 24 GAUEAN
 ZIZTU BIZIAN ETORRI

Haur Hezkuntza, 4. maila

EUSKAL OKELA
 CALLE DE VIZCAYO
 DE CALIDAD
 DEL PAIS VAICO

LK T
UT ZE ITZU

ETXEK **FK**
IKTU K
K NGEL TU K

h k k l , 4
T H 433 5742

Kalkos kopisteria
 FOTOKOPIAK
 zuri-beltza · koloretan

BANDERA SALMENTA

PINTORE KALEA 7 · LASARTE-ORIA
 943 376 424 · 943 376 125 (FAX) kalkos@copisteriakalkos.com

Denborapasak !!

		* BASERRIA	▼	Lege	▼	Intsektu mota	▼	Iratzea	▼	Molusku mota
		Dirudunak		Ibai txikiak		Espartinak		Familia		
		▶		▼		▼		▼		▼
		Arabiarren hizkuntza	▶							
		Sustraitu								
Danbor mota	▼	Hobena	▶ ▼					Galdetzaile bat	▶	
Ogi saski		Ez eme						Bokala		
						Detektagailu	▶			
						Non atzizkia				
Haitzak	▶							Bokala	▶	Bokala
Euskal alderdia								Atzizkia		Hegazti mota
		Pl., ehun sendoa	▶							Nork atzizkia
		Zeharo larritu								Gora egin
Guraso arrak	▶					Olio	▶			
Garaia						1500				
						Kontso-nantea	▶ ▼	Animalia ur-lehortar	▶	
						Nitrogenoa		1		
1. eta 4. bokalak	▶		* BASERRIA (goitik dator)	▶	▼			(Zah.) Txakurra	▶	

Soluzioa: 22. orrialdean.


Egilea: LUMA.

ASKO DUGU ESATEKO

NOAUA! hamaboskaria, Euskal Txokoak, tren eta autobusen ordutegia, noaua.com, kultur ekitaldien sustapena, euskararen normalizazioa, urteko egutegia, beka deialdiak, NOAUA! Txiki, Fototeka, Plis, Plas, Txalo ta Jolas, "Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak"... Gure bazkideak harro egoteko moduan dira. Baina gehiago eta hobeto lan egin daiteke.

Orain, bazkide egiten bazara, Usurbilgo baserrien liburua oparitutako dizugu.

Bazkide egin zaitez!



36 euro urte osorako

Izena: _____
 1.Abizena: _____
 2.Abizena: _____
 Helbidea: _____
 Herria: _____
 Telefonoa: _____
 E-posta: _____
 Kontu Korrontea:

Orrialdea bete eta NOAUA!ra ekarri edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Oharrak !!

Txerrimunik ordainetan !!

ETXEBIZITZA

- Usurbilgo bikote gazte batek pisua alokatu nahiko luke Usurbilen. 679 185 102.
- Usurbilen pisua bat alokairuan hartuko nuke. Tel: 630 032 779.
- Usurbilen edo inguruetan 3 haur eta 2 helduentzat alokairuan hartzeko pisu bat bilatzen dut premiaz. 620 646 769.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Kotxea salgai. Ford Escort familiarra, TD. SS-BB. 657 796 780. Prezioa: 250 euro.
- Lokal bat daukagu alokairuan 70m2koa. Interesatuak deitu 943 372 034.
- Garaje itxi bat salgai daukagu Erreka Txiki Kalean. 676636038.
- Garaje bat daukat alokairuan jartzeko Kale Nagusian, 240 eurotan. 100m2takoa da eta kotxea erraz sartzen da. 943 458 284.
- Aparkalekuak salgai Bizkarra 1-8 etxe taldean, Kale Nagusia 3. 607 905 859 (Imanol).
- Honda Dominator 650 cc motorra egoe- ra oso onean. 667 172 010 (Jon).
- Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian. Interesatuak: 943 361 235.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Usurbilgo bi neska eskaintzen dira LH eta DBHko haur eta gazteei klase plartikularrak emateko. Interesaturik bazaude deitu telefono honetara: 653711574 (Ainara eta Nerea)
- Emakume bat eskeintzen da etxeko-lanak egiteko, pertsona helduak zaintzeko edota antzeko lanetarako. 620 646 769.
- Lan egiteko gogoia daukat. Kanpotarra naiz eta edozein lan egingo nuke: portalak garbitu, plantxa egin, kanguro lanak astebukaeratan, pertsona helduekin, fregaderako lanak... 677 552 258 (Sharon).
- Kamarera euskaldun bat eskaintzen da astelehenetik ostiralera lan egiteko. 667 694 469.
- Emakume bat eskaintzen da astelehenetik ostiralera, pertsona helduak edo ezinduak zaintzeko. 626 641 155 Mariaje.
- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zerbaitetan. 652 757 495.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska

bat eskaintzen da. Esperientzia horrela-ko lanetan. 690 784 113.

- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/617242660.

Lan-eskaintzak

- Kontzertuetan, produkzio lanetan aritzeko lan-poltsa osatu nahi da. Tel. 943 393 318.
- Astean behin, bizpahiru orduz etxeko lanak egiteko pertsona bat behar dut. 605 707 643.
- Astean bi egunez frantseseko klaseak emango lituzkeen pertsona baten bila nabil. 943365737.
- Emakume euskaldun bat bilatzen ari gara etxeko lanak egiteko eta haur bat zaintzeko. Orduategia eta baldintzak adosteko. 943 376 688.
- Arratsaldeta umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko pertsona bat behar dugu. 943361991.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Fatxada margotzeko pintura naranja salgai daukat, kalitate onekoa eta prezio onean. 635 209 235.
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana bat daukagu salgai. Komun kimiko bat eta sukaldea ditu. 1.200km ditu. Prezioa 6.000?. 629680214.
- Bi arratoi-txakur jaioberri ditugu, oso politak. Interesatuak deitu 943364734 zenbakira.
- Umea eramateko mendiko motxila bat erosiko nuke. Tlfnoa: 605 72 48 24
- Emuak salgai. Bi emu, arra eta emea modu onean saltzen dira. 657633461.
- Itsasoan arrantzan egiteko kainabera behar dut. Ahal bada teleskopikoa. Zurea erabiltzen ez baduzu, doan edo merke antzean emateko prest bazaude, gustura hartuko nuke. Tel: 676374812.
- Bideokamara salgai, Canon XL1 semiprofesionala, bateria eta tripodea barne. Gutxi erabilia. 943 376 902 / 665 749 615 gauzez.
- Pago egur txikitua eta lehorra salgai. Etxera eramaten da. Tf. 615 755 762.



Zorionak Oiortxo!

Abenduaren 3an sekulako poza eman baitzenigun etxekoei orain dela bi urte jaio zinenean. Beti bezalako xalaua jarrai ezazu urte asko eta askotan. Muxu handi-handi bat etxekoen partez. MUUUAAAkkk.



Zorionak Iruene!

Abenduaren 3an zure 15. urtebetetzea izan zen. Muxu handi bat, aita, ama eta Zuriñeren partetik. Orain bezala jarraitu jator izaten, zorionak!

JAIOTZAK

- Jon Arruti Matxain, azaroaren 23an.
- Gorka Arroyo Iribar, azaroaren 30ean.

HILDAKOAK

- Julian Arrospide Iturralde, abenduaren 5ean, Santuenean.

**(Usurbilgo Bake Epaitegitik jasotako informazioa)*

Oharrak - Txerrimunik ordainetan
doaneko atalak dira

Datorren alea abenduaren 30ean argitaratuko dugu. Zorion-agurrak abenduaren 23a baino lehen ekarri edo bidali.

Agenda !!

Abenduak 16, ostirala

- Niko Etxart, Dominika Etxart eta Robert Larrandabürü. Sutegiko auditorioan, 22:30ean. Sarrera: aldez aurretik, 6 euro. Takilan, 9 euro. Sarrerak non erosi: udal-erregistroan eta Oiardo kiroldegian.


Abenduak 17, larunbata

- Pirritx eta Porrotx pailazoak Oiardo kiroldegian. 16:30/18:30.
- Santuenea Kultur Elkartearen inaugurazioa.
- Xiberutarrekin kantu-afaria Agerialden.

Abenduak 18, igandea

- Santo Tomas azoka, frontoian. 10:00/13:30. Antolatzailea: NOAUA!

Soluzioa !!

	*	I	*	A	*	O	*	G	*		
	A	B	E	R	A	T	S	A	K		
	*	A	R	A	B	I	E	R	A		
*	A	*	E	R	R	U	A	*	N	O	R
O	T	A	R	R	E	*	R	A	D	A	R
*	A	R	R	O	K	A	K	*	I	*	A
A	B	*	O	L	A	N	A	K	*	E	K
*	A	I	T	A	K	*	K	O	I	P	E
A	L	T	U	A	*	M	*	I	G	E	L
*	A	O	*	U	N	D	I	*	O	R	A


AZKEN ORDUKO OHARRA

- Gabonetako gehigarriak dioenez, abenduaren 19ko Flauta Orkestraren emanaldia 19:00etan hasiko da. Baina Zumarte Musika Eskolak azken orduan jakinarazi digunez, jaialdia 19:15ean hasiko da, Sutegin. Egitaraua, gehigarrian aipatutako bera izango da.

Musikaren txokoa !!



Mikel Laboaren itzulera

Xarma eta  **H**arridura azken unera arte gordetzen dituen komunikatzailea dugu Laboa; dizdira, transgresioa, identitatea eta modernitate herrikoi hurbila darizkio bere lan orori eta, oraingoan ere, kantu berriak biltzen dituen disko honetan, intuizio berdina topatzen dugu: alde batetik, txorien mundu oniriko, metaforikoa; eta, bestaldetik, bere oinarri zein inspirazio iturri izan diren

hainbat autoreri eskainitako omenaldiak (Joyce, Billie Holliday, Brecht, Brel...), non, besteak beste, euskaraz, frantsesez, italieraz eta gaztelaraz abesten duen. Ohizkoak dituen zenbait idazleren hitzak (J.A. Artze, Bernardo Atxaga, Sarrionandia) eta musikariak (Iñaki Salvador, Josetxo Silguero, Hasier Oleaga, Iosu Izagirre, Dani Perez, Carlos Itoiz, Xabier Montoia, Ruper Ordorika eta Alaisdair Fraiser eskoziar biolin jolea) bildu ditu lan eder honetan.

Egin kontu !!

Argitalpen lagungarria

Aurreko alean aipatu genuen Euskarazko Produktuen Katalogoa argitaratu berri dute. Katalogo berriak dakartzan produktuak haur eta gazteentzat dira, 16 urte bitartekoentzat.

Musika, literatura, informatika, jolasak, zinea eta abar agertzen dira katalogoan, gaika sailkatuta. Olentzerori gutuna idazteko orrialdea ere badakar aurtengo katalogoak.

Usurbilen 800 ale banatu dira.



G L

G

rr

k

Z

ILKET

TELEFONO 3 37 1

Zuen publizitatea hemen

943 360 321

publizitatea@noaua.com

Urte berri on !

Gabon-gau, Eguberri
ta urteberrri on
bakean bizi diren
andre eta gizon .
Begira familia
zer giro darion
elkarri opatuz
pake eta zorion.

Zure Gabonetako opariak

MAHUKAN



Aukera zabala!!



Zorionak eta Urte berri on!